



Surfatloia

EGUNA: 2025/06/22

ORDUA: 9:00-12:00

Antolatzailea: Groseko Indarra Surf Taldea

Sarrera

Groseko Indarra Surf Taldeak **25 urte betetzen** ditu aurten, Donostian itsasoko kirolak sustatzen eta ahal den neurrian talde-lana, parte-hartzea, berdintasuna, euskalzaletasuna eta inklusioa bezalako balioak bultzatzen. Urteurren berezi hau dela eta, herritarrei proposamen berritzaile eta zirraragarri bat eskaini nahi diegu, gure esentzia eta komunitatearekiko konpromezua islatzen duena.

Arraun eta korrika uztartzen dituen ekitaldi honen helburu nagusia Kluba erreferente kirol eta sozial gisa ikusgai egitea da, itsasoarekin eta ingurune naturalarekin lotutako jarduera fisikoak sustatzen dituzten ekimen guztiekin lankidetzan aritzeko eta laguntzeko prest dagoela erakutsiz. 25 urte hauetan zehar, Groseko Indarrak inklusioa eta irisgarria den espazio gisa sendotzeko lan egin du, adin eta maila guztietako pertsonen kirola giro seguru eta motibatzaile batean praktikatu ahal izan dezaten.

Ekitaldi hau kirol eta herritarren festa izatea nahi dugu, non **edozein pertsonak**, esperientzia edo kondizio fisikoa alde batera utzita, **parte hartzeko**, partekatzeko eta lurra eta itsasoa batzen dituen jarduera batez gozatzeko aukera izango duen. Gainera, berdintasuna eta inklusio soziala kirolaren bidez sustatzeko konpromezua berresten dugu, balio horiek ongizate kolektiboari eta gizarte-egituraren sendotzeari laguntzen dietela sinetsita.

Arrauna eta korrika uztartzen dituen ibilbide honekin, Kluba osatzen dugun guztion artean urte hauetan zehar izan dugun gaingitze- eta lankidetzaren-espíritu transmititu nahi dugu. Parte-hartzaile guztiek ospakizun honen parte sentitzea eta itsasoarekiko, kirolarekiko eta talde-lanarekiko dugun grina partekatzea nahi dugu.

Groseko Indarra Surf Kluba-k antolatutako ekitaldi berezi honek **bi ibilbide** izango ditu, pertsona bakoitzaren kondizio fisiko eta esperientzia maila ezberdinetara egokituz:

1. **Ibilbide luzeak** erronka handiagoa eskaintzen du, kirolarien gaitasun fisikoa eta erresistentzia proban jarritz. Hasiera Groseko Indarra Klubetik izango da, eta parte-hartzaileek 3 km inguru egingo dituzte

arraunean, Paseo Berritik igaroz, kostalde ikusgarriari jarraituz eta Kaira iritsiz. Bertan, taulak antolakuntzak zehaztutako gunean utzi beharko dira, eta korrika egiteko beharrezkoa den materiala jasoko da. Bigarren zatian, parte-hartzaileek 3 km egingo dituzte korrika, abiapuntura itzuli arte.

2. **Ibilbide laburrak** parte-hartzaile gehiagorentzako irisgarritasuna bermatzen du, esperientzia gutxiago dutenentzat edo jarduera ludikoagoa bilatzen dutenentzat egokia izanik. Ibilbidea Groseko Indarra Klubetik hasiko da ere, baina kasu honetan, arraun zatia 1,5 km-koa izango da, Zurriolako kostaldean barrena eta ondoren pasealekutik itzuliko da Groseko Indarrera 1 km-ko distantzia egin eta gero.

Helburuak

1. Itsasoarekiko zaletasuna bultzatu, itsasoa zaindu eta itsasoaz gozatzea.
2. Gizartearen eta kirolaren arloko jardueretan herritarren parte-hartzea sustatzea, berdintasuna eta inklusioa sustatuz.
3. Kirolaren bidez talde izaera indartu, Groseko Indarra Surf Taldea jendartean ezagutarazi.

Ibilbideak

Ekitaldiak **bi ibilbide ezberdin** izango ditu, pertsona kopuru handiago baten parte-hartzea sustatzeko helburuarekin, egoera fisiko eta kirol zaletasun maila ezberdinetara egokituz. **Lehen ibilbidea kilometraje handienekoa** da, eta arraunean eta lasterketan prestakuntza fisiko edo esperientzia handiagoa duten parte-hartzaileei zuzenduta dago. **Bigarren ibilbidea laburragoa eta irisgarriagoa** da, eta jardueraz modu ludiko eta parte-hartzailean gozatu nahi dutenei zuzenduta egongo da, inklusioa eta kirol-espiritua sustatuz.

Horrela, Groseko Indarra Surf Taldeak kirola ingurune seguru eta motibatzaile batean egitea sustatu nahi du, **esperientziadun kirolariek zein hasiberriek esperientziaz gozatzeko** aukera izan dezaten, talde-lanaren eta berdintasunaren balioak indartuz.

1 ibilbidea: Groseko Indarra - Zurriola hondartza - Portua - Groseko Indarra ST

Irteera: 9:00 Groseko Indarraren instalazioetatik

Denbora maximoa: 3 ordu



2 ibilbidea: Groseko Indarra - Espigoia - Groseko Indarra ST

Irteera: 10:30 Groseko Indarraren instalazioetatik

Denbora maximoa: 1 ordu eta 30 min

